

Euskara eta 2008ko herri bozak

Heldu den martxoan herri hauteskundeak iraganen dira Ipar Euskal Herrian eta erronka bereziak izanen dira euskara dela-eta. Alabaina, azken hauteskunderetatik hona, hots 2001etik, ekimen eta aldaketa asko gertatu dira hizkuntzaren alorreko panorama bestelakatu.

Euskalgintzako herri mugimenduen aldetik lehenik: 2002tik 2006ra Euskal Konfederazioak lan jarraiki eta sakona eraman zuen Herriko Etxeek hizkuntzaren normalizazio engaiamenduak har zitzaten. 42 udalek erantzun zuten eta hitzarmena izenpetuz gero, plangintza onartu eta martxan jarri zuten. Denbora berean horietako bost herritan hamarnaka eragile sozialek *Bai Euskarari akordioa* izenpetu zuten, herriko euskararen aldeko giroa eta egoera aldatzen lagunduz. Kontseiluak bestalde, zenbait herritan eramaten den hizkuntza politiken neurketa zehatza burutu zuen 2006an, ebaluaketa tresna sortuz eta agintarien benetako borondate politikoa agerian utziz.

Instituzioen aldetik berriz, Hizkuntza Kontseiluaren entseiuaren ondotik (2001/2004) hizkuntza politikaz arduratzeko lehen egitura publikoa sortu zen 2005ean, Euskararen Erakunde Publikoa (EPP) hain zuzen. Honek euskara sustatzeko politika



DANI BLANCO

bat aurkeztu du, eta besteak beste, Euskal Konfederazioari lekukoa hartuz, Herriko Etxeetan normalizazio ardura bereganatu du, jarraitzeko eta hedatzeko asmoz. Joan den udaberrian haren presidenteak eta prefetak gutun elebiduna igorri diete auzapez guztiei, Herriko Etxeko bizitzako alor guztietan euskararen erabilera posible dela baieztatzeko, azken urteetan han-hemenka errepikatzen ziren zalantza eta kezka uxatuz. Azkenik hizkuntza teknikariaren figura sortu eta hedatzen ari da herri mailan, zeinetan gero eta eskumen gehiago hartzen dituzten herri elkargoetan. Hendaiaren ondotik, Baiona eta Miarritzeko herri nagusiek batbedera hartu dute, Iparraldeko beste herri gehienek biltzen dituzten hiru herri elkargoak bezala.

Panorama berri honetatik argi gelditzen da herria edota herri elkargoa hizkuntzaren normalizaziorako maila garrantzitsu eta eraginkorrak bilakatu direla. Tokiko administrazioaren jarduera eta jendartearen dinamika uztartzeko eremu egokia da alde batetik. Bestalde, Iparraldeko instituzio berezia lortu bitartean, Herriko Etxeak erakunde erabakigarriak dira hizkuntzaren normalizazio politikak abian jartzeko, nahiz eta euskarari legezko ezagupena oraindik eskas zaion. Azkenik Fran-

tziaiko Estatuko politika erasokor edo borondate eskasaren salaketan itozteko arriskua saihestuz, lan ildo esperantzagarria ireki da *de facto*ko ofizialtasunari eta bizitza sozialean hizkuntzaren erabilpenari begira.

Egoera honetan pentsa daiteke euskararen gaiak lehen baino leku gehiago izanen duela hauteskunde kanpainan. Euskalgintzako herri mugimenduek interpelazio zuzena luzatu beharko diete alderdi guztiei beren programa politikoetan gaia sar dezaten, hizkuntzaren normalizazio bidean engaiamendu eta neurri konkretuak zehaztuz eta ez betiko lelo hutsak errepikatuz. Horrela, azken sei urteetako ibilbidea ikusirik, herri hauteskunde hauek etapa berri baten hasiera bilakatzen ahalko dira, orain arteko lorpenak iraunarazteko, herri gehiago inplikatzeko eta hizkuntza normalizazioan sakontzeko. ■

«

**Euskalgintzako herri mugimenduek
interpelazio zuzena luzatu beharko
diete alderdi guztiei beren programa
politikoetan gaia sar dezaten,
hizkuntzaren normalizazio
bidean engaiamendu eta neurri
konkretuak zehaztuz eta ez
betiko lelo hutsak errepikatuz**

»

